

ANAITASUNA

BIZKAIA

183 zenb. 1970, • Otsailak 28
Apartado 17 • GALDAKANO

Dei zoli bat

Erri batek programa bat egiten dauanean, erri bat estrukturatu eta eratu nahi danean, bizitzearen alderdi eta adar guztiak artu behar dira kontuan. Horrexegaitik agertu dira gaurko estaduetan ministerioak: gobernazinkoa, burdin-langintzako, lur-langintzako, irakaskintzako, eta abar. Espainian, uste dot 18 dirala. Izan bere, gure gaurko gizarteari erantzun taxuzko bat emoteko erarik onenak dira egitura* horreek, baldin erri bakoitzaren apartekotasuna onartzen badabe, erri bakoitzak bere izakera berezia* dauka ta.


Gaur egun, eraketa honetan, irakaskintza arloak garrantzi andia artu dau, eta egunetik egunera garrantza doa garrantzi hau. Urtetik urtera gehitzen da irakaskintzarako presupuestua.

Eta ez da zuhurregia izan behar, irakaskintzeak erri bat osotzean garrantzi andi andia daukala ikusteko. Erri batek, aurrera egin gura dauanean, derrigorrezkoa dau irakaskintza arlo hau taxuz* burutzea.

Elburu* honeekaz eta gure erriari gaur dagokion kulturea eta erantzuna emon nahirik sortu dira ikastolak hor hemenka. Beste arazo bat da elburu hori betetzen daben ala ez ikustea, edo baldarka bakarrik betetzen dabela ikustea; baina horretara jo gura dabela ezin ukatu.

Ikastola honeek arazo gogorak ekarri ditue; ekonomia alderditik, pedagogia alderditik, lokalak dirala, andereñorik ez dagoala, eta abar. Oraingoan, azkenengo honeri oratu* gura neusko.

Orainarte, eta oraindik orain bere holan gertatzen da, ikastolarako andereño bat behar dabenak, gaztelaraz esaten dan bezala, "a salto de mata" ibili behar dabe, andereño dalako hori bilatzeko. Eta halako neska bat, euskeraz dakiana eta magisterioko ikasketak amaitu dituana, ez dakit non tokitan dagoala entzuten dabeneko, berehala*, derri-gorak beharturik, neska horrengana joaten dira, neska horrekin itz egin eta kito. Jokaera honek arazo andi baino andiagoak dakaz, andereñoen egokitasunaren aldetik batez bere. Eta sarritan, larriagoa dana, ikastola batzuek ezin zabaldu edo itxi egin behar, andereñorik ez da-



•• BOZA ••

(Ibarrola)

goalako. Beraz*, alderdi batetik egokitasun mailan arazo bizi bizi bat badago, beste alderdi batetik, eta lehengoaren gainera, jenderik ezaren arazo ez da txikiagoa.

Arazo hau ikusirik, dei zoli bat euskal gaztetxo eta gazteei, euskal solo horretara begirada bat egin daien eta ikusi daien, beste arazo batzuen artean (irakaskintzea ez da bakarra), andereño eta maisuen premia gorria dagoala, erritik sortutako andereño eta maisuen premia larria. Eta premia hau ikusirik (ez bakarrik ikastolei begira, beste eskola eta bigarren mailako erakundeek begira be bai) arazo horrerri oratu egin behar jakola; aurreriaz jakinik, lan gogorra dala, lan andia dala egiteko dagoana, eta sarritan ez dala "positibo" izango diru aldetik. Baita dehadar bardina gurasoei bere: ahalegindu daitezala, euren seme-alabei arazo honek

ikusi eragiten (aukeramenak, personala izan behar dauala kontuan eukirik), nahiz eta beste karrera batzuek egitea "positiboagoa" izan eta, beste bide batzuek artu ezkerro, diru eta fama gehiago lortu.

Uste dot, dei zoli hau erriarena dala, situazino eta arazo batzuen dehadarra. Bestalde, persona batek profesino arazoa planteatzen dauanean (eta taxuz planteatu behar dau, ezkontza arazoa planteatzen dauan besteko seriotasunaz, esate baterako), situazino bateri begira planteatu behar dau. Nire eritxiz, persona bakoitzak bokazino bat dauka, bokazino ez baita* abade, monja edo fraileen monopolioa. Eta bokazino hori ez da gau baten sentitzen dan aparteko dei berezi bat. Bokazinoa erriaren dei bat da, munduaren aurrean planteatu behar dana. Bakoitzak, bere munduaren aurrean eta aurrean daukan errealdade hori azertuaz, erantzun bat emon behar dau, ahal badau (bokazinoaren bigarren elementua). Beraz*, ahalmen batzuek eta beharrian batzuek osotzen dabe bokazinoa.

Lan andia da eta zabala, arlo honetan agertzen jakuna; eta horretarako, beharrezkoa da jendea gertatzen joatea, kultureak garrantzi andia baitauka* erri baten indartzean. Horregaitik, ba, dei zoli bat euskal gaztetxo, gazte eta gurasoei: Beharrian larriak dagoz; eta jendea gertatzea da biderik zuzenena, beharrian horreei erantzun patxadazko bat emoteko. Tituluak ez deutsee nortasunik emoten personei eta erakundeek, baina beharrezkoak dira.

Egia esan, izkuntzak beharrezkoak dira; eta, eurak ikasita, gehiago irabazten da eta trankilago bizi leiteke. Baina hori ote da gure erriak behar dauana? Sekretariak, pilotuak... behar ote dira? Behar, behar..., danak; baina jerarkia bat derrigorrezkoa da. Etxe baten, oheak falta dirala, labadora bat erostea aldrebeskeria bat iruditzen jat.

JUAN ANTONIO ARAMBURU

Galdakano

Ejercicio Espiritualak urtean behin egiten dira errian. Oraindik oraintsu arte, ifernu ta deabruaren gain berba egiten izan da, gutxi gora-behera. Orain gauzak zerbait aldatu dira. Baina orain be, ejerzizioak planteamentu barik edo planteamentu serioso barik egiteko arriskua dago. Eta honetara be, alienatu egin leiteke erria. Gure ustez, ejerzizioak egitera doazanak eurak aukeratu behar leukeez, zelanbait, gaiak, erea eta izlariak.

Ganguren taldeko zuzendaritzea barriztua izan da. Mendigoizale honeek, menditik ibilketak eta holakoak antolatzen ditue. Dana dala, mendigoizale talde honek beste gauza batzuek bere egin leikez, ondo gainera. Ez dogu uste, talde horren zeregin bakarra, mendira igonda, aizea artzea danik.

Koralean krisis gogorren bat sortu da, eztabaida batzuek izan ondoren. Eztabaida honeek, igazko Santagedetan eta aurtengo Gabonetan "Los Mitos"-ekin nahastean egingdako jaialdian erne ta gogortu ziran. Orain, neska abeslari bi taldetik kanpora bota ditue, botazinoak egin ondoren. Hau ikusirik, Kolareko bost onenatarikoak alde egin dabe abeslari talde horretatik.

Bengoetxeko auzunean, zementu fabrika bat egitekotan ei dabilta. Bertako bizilagunak firma bila asi dira, asmo hori galerazo guran, era horretako lantegiak jendea bizi dan ingurutik urrun egin behar litzakezala adierazoz.

Eliza barria egiteko antolaketak aurrera ei doaz. Ez da berehala* egitekoa eliza hori!

Jabier Agirreamalloa abade jauna, esku lanean asi da "Angulo"-ren lantegian.

URBIETA

12 ARRIETATIK

Azkenengo urteotan sarritan entzun dogu, gure baserriak utsituten doazala, lanik asko ta dirurik gutxi emoten dabela ta, Honen kontra alitzatu dira batzuren batzuek, baserria aurrera atera guran.

Gure eskualdean* Elorrio dogu ekintza horretan nagusi. Azkenengo urteotan, bost bat mila makatz landara sartu dira bertan.

"Extensión Agraria"-koak antolatuta, irakastaldi batzuek emon dira, makatz zuhaitzak zelan inausi* jakin erazoteko. Irakastaldi honeek aste bitan banatuak izan dira: lehenengo astean teorikoak eta bigarren astean praktikokoak.

Garai, Berriz eta Elorrioko 40 bat nekazarik jarraitu ta amaitu ditue irakastaldiok.

— o —

Bi ta iru miloi peseta aurreratuko deutsez Bizkaiko Diputazioak Berriz eta Elorrioko Aiuntamentuei, eskola barriak jasoteko. Baita beste miloi bat, Ermutik asi ta Mallabitik zehar Gomezeagaraino doan bidea konpontzeko.

— o —

Berrizko jaiak amaituaz batera asi jakuz Abadinoko San Blasak. Ospe aundiko jaiak nekazarien artean. Aurten bere, solorako tresna ta makinak azoka* egon da. Jai egun guztietan, gau ta arratsalde, idi probak eta soinuariak egon dira. Aurtengo idi probetan, Lasarteko Korta gelditu da lehenengo, Berrizko Antzuaren aurretik.

— o —

Durangoko Jose A. Egileor, 18 urteko mutil gazteak, otsailaren* 8-an, mendirantz urten eban, Alluizko Atxaren Labargorri tontorrera igon guran. Igoera hau gatxenatariko bat lez ezagutzen da, 6 gn. mailakoa. Tontorrera eltzerakoan, orman egoan egurrezko tako zahar bat apurtu ei jakon eta amildu egin zan. Igande arratsaldeko bostak inguru ziran. Urrengo egunean bere bila urten eben, baina ordurako ilda egoan.

— o —

27 miloi t'erdikoa da Durangoko Aiuntamentuaren aurtengo urterako presupostua.

— o —

Durangoko "Tabira Mendi" alkarteak, martxoaren 15-erako dauka antolatuta bere ileko urteerea. Urteera hau Ayako Aitzak deritxoen mendietara izango da, Oiartzungo

lurraldeetan. Honazkoan Donostian geldituko dira, egun horretan Bilboko Athletic eta Real Sociedadek jokatzin dabe ta.

— o —

Aurreko ANAITASUNA-n esan genduan, Durangoko Aiuntamentuak galerazo gura izan dau, Izurtza aldean lantegi bat jasotea, inguruko jendearen osasunarentzat kaltegarri izango zala ta. Halan ta guztiz bere, lantegia eregi* egingo da; baina aldakuntza batzuek egin beharko dira, alboko bizilagunei kalterik ez egiteko.

— o —

Otsailaren* 14 eta 15-ean, Elorrioko "Jolas Leku" dantza tokian "Unai" bikotea egon zan abestuten. Bikote honek, igaz Eibarko Euskal Abeslarien Txapelketan, lehenengo saria atera eban.

— o —

Otsailaren* 14-ean, Ermuko "Arce" alkartearen babespean, jaialdi bat egin zan. Bertan agertu ziran era guztietako abeslariak, lehengoak eta oraingoak.

Euretariko batzuek honeexek izan ziran: Jose L. Orozko, Natxo de Felipe, Txomin, erriko talde batzuek, eta abar.

JUAN ANTONIO AROMA

Igorreta

Bakixako kofradiak bere jaiak ospatu ditu. San Sebastian egunean, urtarrilaren 20-an, meza errikoia itzaldi jatorragaz eta Orominoko "Danok Bat" ezpata dantzariak. Ilunkeran erromeria, "Bakixa" dantza tokian. Eguna oso ederto igaro zan. Urrengo igandean, ilaren 25-ean, goizetik, karroza ibilketa alaia, txistu ta guzti. Halako delarekin nor gelditu etxean? Amar t'erdietan, mezea, txistulariekin batera abestua. Sermoia, garratz eta argi. Zotin batzuek somatu ziran, eta bekoki ilunak bere egon ei ziran. Aspal-diko partez poztu ginduzan itzaldi harek; eta igandero bere, holako meza bat gura geunke.

Ondoren, erriko zazpi ezpatadantzari talde. Danak batera, sei dantza eskaiñi* eutsiozan han alkartuta egoan sei kofradietako jendeari, Saioa amaitzeko, "erreglak". Ez da behingoan galduko erriko auresku hau. Alkartasun giroari jarraituaz, neska-mutil bikoteen arineketea, umeen abestaldia, eta Arroita, Imanol eta Iñakiren bertsoak. "Eperargiak", abeslari. Gaztetxo eta gazte mordo baten dantza, kantu ta santzoeikin* amaitu ziran aurtengo jaiak. "Agur eta urrengoarte" irakurten zan kartel aundi baten.

JOALDI

Berriz

Zer jazoten jako gurasoen alkarteari urte batetik honantz?

Ez da ezer askorik egiten; edo egiten dan apurtxoak, gogo gutxiagaz ta erdizka. Hauxe ikusi dogu, behintzat, Inazio Otaduirri egindako azken omenaldian: prestaera gutxi eta berotasun gutxiago.

Holan segitzekotan, oba litzake alkartea desegitea. Bestela bildur gara, jendea engainatu bakarrik egiten ez ote dan, alkartearen bidez zeredozer egiten dalakoan. Horren orde, arduratu ta berotu daitezala, ta sartu jende barria, lanerako gogotsua. Ta ekin, ba dago non eta. Esaterako, eskolak, urak, omenaldiak, zaharren preminak, umeenak, eta abar.

Arratia

Jendearen eritxiak jakiteko, erri guztietan inkesta* sakon bat egin ondoren, Arratiko Erri Gaztediko arduradunak aurtengo gazteen ejerzizioak gertatu dabez, Itzaldiak nol: emon bere, auteskunde* bidez erabagi dabe. Aurten, iru abadek eta seglar bik izango dabe zeregin hau. Hau ta gehiago bere egin beharko da Arratiko gaztediari buruz, erromeria ta "whisky" tokietan bakarrik bihotza jarrita dauken artean.

Beste alderdi batetik, abadeak erritarrekin batera asi dir a eliz arazoak arakatzin*. Ea Arratiko elizea, abadekeria usaina itxiaz, giro erritar baten abiatzen dan!

ZAMAKOLATARRA

MUNDU BIRIBILA

ALEMANIA: NAZINO BAT, ESTADU BI

Europaren gaurko horapilorik aundienetariko bat, Alemaniaren egoera da. Egia esan, Alemaniaren batasuna ez da izan antzinakoa. 1803-an, Alemania 112 estadutan zatituta egoan. Germaniar Federazioa Bismarck-en denboran batu zan, 1871-n.

Alemania, 1945-eko maiatzaren 8-an, bere nortasun politikoa galtzen ebalarik, aliaduen menpean jausi zan. Bigarren Gerra Aundiaren bukaeran* ginan.

Berlingo Agiriak (1945-eko ekaina*) eta Postdamgo Itunbenak* (1945-eko abuztua) okupazinoko lau zatitan banandu eban Alemania. Rusiaren eta mendebaleko* iru aliaduen (Estadu Batuak, Bretaina Aundia ta Frantzia) arteko alkar ulertu ezinak eta, batez be, gerra otzaren asierak ekarri eban Alemaniaren benetako zatiketa. 1949-an, Estadu bi jaio ziran: Alemaniak Errepublikak Federalak, mendebaleko iru aliaduen zatiak osotua, ta Alemaniak Errepublikak Demokratikoa, sobietarren okupazinoko zatia. Berlin, antzina-ko uriburua, Alemaniak Errepublikak Demokratikoa aurkitzen da, ta gaur be lau zatitan bananduten dauan "status" berezi bat dauka. Sobietarren zatia, 1961-ean jarri zan-aresi* ospetsua dala bide, beste irurakandik bananduta dago.

Alemaniak Errepublikak Federalesko oin-legea, 1949-ko maiatzaren 23-an atera zan. Mendebaleko aliaduak, 1955-eko maiatzaren 5-ean, Alemaniak Errepublikak Federalesko askatasuna ta buru-jabetasuna aitortu ta N. A. T. O.-n artuaz, okupazinoko estatutua kendu eban. Alemaniak Errepublikak Federalesko amar Estadu, edo Länder, federatuk osotzen dabe, bakoitzak bere Konstituzinoa, Parlamentoa ta Ejekutiboa izanik. Gobernu Federalesko egonlekua, Bonn.

Alemaniak Errepublikak Demokratikoko Konstituzinoa 1949-ko urriaren 7-an atera zan, 1968-ko apirilean referendun baten bitartez Konstituzino barri bat onartuaz. Gobernua, Pankow-en (Berlinen) dago.

Alemania: Nazino bat Estadu bitan. Halan esan dau Brandt Kanziller federalesko, oraindik oraintsu, Parlamentoa, "Nazinoaren egoerari" buruzko itzaldian. Baina lehenago Ulbricht-ek (Alemaniak Errepublikak Demokratikoko buruzagiak) horixe berori aditza emon eban, Estadu bien arteko Alemaniak Konfederazioa proposatu eban.

Demo-kristinauen aginte luzean (Adenauer-Erhard-Kiesinger), Estadu biak batzea elburu* sakratua izan da. Brandt, lehenengo kanziller sozial-demokrata, jomuga* horretatik aparte dabil.

Nazino bereko Estadu biak, itunben* orokar* baterako alkarriketak asteko asmotan dira. Brandten eritxiz, alemaniak estadu biak, nazino bereko zati bereziak izanik, ezin ditue izan eta ez ditue izan behar nazino arteko legediaren arauzko artuemon diplomatikoak, ze nazino bat bakarraren barruan ez dago nazino artetasunik. Nazino artetasunaren posibilidada bakarra nazino ezbardinen artean baitago*. Brandtek, ba, onartzen dau Alemaniak Errepublikak Demokratikoa, baina bere nazinoaren zati lez.

Ulbrichtek alkarriketak asteko gertu dagoala esan dau, baina nazino arteko legediaren arabera* errekonozimentua eskatuaz. Puntu honetaz Bonnekko Gobernuak ezetz dino.

Dana dala, ogei urteren buruan kanziller federal batek gauzak argi ta garbi agertu ditu. Ez da gutxi. Estadu bien bat egitea noiz? Geroak esango dau.

A. MUNIATEGI

GABON EGUNEAN ESPETXEAN EGON GINAN GU

Zihurtasun guztiarekin ezin geinke esan. Baina, joan dan gabon egunean, Basauriko espetxean 34 euskaldun egon ginan, Burgos 24, Villafranca de Campos 3 (irurak abadeak), Carabanchelen 10, Zamoran 14 (danok abadeak), Jaenen 13, Palencian 7, Puerto de Santa Marian 1, Ocañan 2, Cordoban 1. Beste toki batzuetan bere, ba ginan gehiago.

DEKLARAZINO BATZUEI BURUZ

Madrileko Ikastetxe Nagusiko zuzendari dan Botella Lluria jaunak, honako hau jaurtigi dau: "Sendagintza ikasten diharduen bigarren eta irugarren mailako ikasleen oporra, opor politikua izan da".

Botella jaunak, holako deklarazio bat egiteko, arrazoi sakonak izango zituala uste dot; osterantzean, bereak bai izango zirala deklarazio politikuak!

Baina, aurrera jarraiturik, zalantzan* jarri gaituan beste hau be irakurri dogu. Madrileko Ikastetxe Nagusian ikasten dabilen ikasle bakoitzak, 33.000 peseta ordaindu behar ei dauz; eta 33.000 peseta horreetatik, ikasleak berak 3.000 peseta baino ez ei ditu ordaintzen. Hau, ikasle bakoitzak 30.000 pesetako beka bat artuko baleu lege da, Estaduak bakoitzagaitik 30.000 peseta ordaindu behar baditu.

Eta oraindik behiago: "Unibersidadeko zuzendariaren zeregina, diru hori alferrik galdu ez daiten, zuhur jokatzeta da".

Nik behintzat, orainarte, ez neban uste Unibersidade bateko zuzendari baten egitekoen artean holakorik egoanik. Kontable bihurtu ote jakuz ba? Ala ez ote da euren ahalegin guztien jokabidea, gizon kontzientziatuak egiten saiatzea*?

"Zeuk be zeure eritxia emoteko eskubidea dozu". Hauxe dino "Codorniz" aldizkariak. Ba, eskubide horrerik oraturik*, neure eritxia azalduko deusuet.

Nire ustez, Botella jaunak egin dauan planteamentua ez da bape zuzena. Nik neuk, beste era honetara egingo neuke.

Lehenengo ta behin gogoan artu daigun, ikasleen ikas-kintzak ordaintzeko eralgiten* diran 30.000 peseta horreek ez dirala Estaduarenak, gizartearenak baino. Eta gero ikasle horreek, euren ikasketak amaitu ostean, diru hori eta gehiago be bai, gizarteari berari bihurtuko deusola ordainez, "jokoak" horrela jarraitu daian. Gizarte barruko jokoak honelakoa izan behar dau edo behar leuke. Gaur zeuk emoten deustazu, eta bihar neuk emongo deusuet. Eta hau holan izanik, Unibersidadeko zuzendari baten eginkizuna ez litzake diru kontuak artzea izango, gizonari gizon egiten laguntzea baino.

JOSEBA ARRIETA

AMERIKETARA JOAN - ETORRIA

Gure inguruko beste erri txiki askoren antzera, Aulestia bere txikituten doa, bizilagunei begira jartzen bagara behintzat. 1860-an, 1.419 bizilagun zituan. Harrezkero, gutxituten etorri gara, eta gaur 973 bakarrik gagoz errian. Honeetatik, ehuneko sei inguru Ipar Amerikan artzaintzan dabilta, euren guraso, etxe, erri ta lagunakandik urrun. Euskalerrria maite izanarren, bizibeharrak eraginda joan ziran erbestera. Baina ez danak, eurretariako batzuek bertan be bizibide politik eukezan eta.

Lantzean behin etorten jakuz batzuek, gugaz egotera. Sarritan, egonaldi laburrak egiten ditue eta atzera buelta. Honeen artean, ba dira ezkongaiak eta baita ezkonduak bere.

Bizilagunez gutxituarren, gure erria azten doa. Orain bere, etxe barriak egiten dihardue: erri aldean bat, eta Telleria baserriaren ondoan beste bat. Iru talde ditugu errian, etxegintza lanerako gertatuta dagozanak. Ba dauke nahiko lanik, bai etxe barriak egiten, bai zaharrak dotaraten.

GONTZOLAI

Euskaltzaindia Barriztatze Laguntza

Caja Laboral Popular	100.000	pta.
Banco de Vizcaya	10.000	"
Caja de Ahorros Municipal de Bilbao	5.000	"
Rikardo Zumalabe (Bilbao)	1.000	"
Santiago Belausteguigoitia (Bilbao)	1.000	"
Balentin Arrese (Bilbao)	1.000	"
José Altuna (Bilbao)	1.000	"
Libe Altuna (Bilbao)	1.000	"
Sabin Ziarsolo (Bilbao)	1.000	"
Jesús Etxano (Bilbao)	500	"
Koldo Berganza (Durango)	500	"
Miren Petralanda (Bilbao)	300	"
José Luis Grande (Lekeitio)	250	"
Andoni Lauzirika (Gernika)	200	"

EUSKALDUNGOA

«Euskerazaleak» alkartekoak batzar nagusia ta auteskundeak* egin ditue, otsailaren* lean. Ez da ezer aldatu esandakoetatik.

Kantariak ezin dabe ezer eskaini* uriburua nagusietan. Ez da erraz horretarako baimenik lortzea.

«Ez dok amairu» talde osoak grabaturik, disko aundi bat agertuko da laster.

«Enarak» kantariak, Donostiako jailekuean abestutekotan dira. Jaiak artzea mesedegarri jaku, baina ezin dogu...

Mikel Laboak, Bertolt Bercht-en poesiak kantuz argitaratu ditu.

Gailegoak Biblia ta beste eliz liburu behinenak euren izkuntzara itzuli ditue azken egun honeetan.

Lur editorial etxeak Natxo kantariaren abestiak inprimatu ta eskainiko deuskuzala entzuten da. Natxo hau, «garian» dago.

Baso aizkolariak (gehienbat nafarrik) asi dira Frantziako Alpes eta Añuñemendietara joaten. Amar bat ordu egunero lanean egin ondoren, ilean 12 edo 14 mila peseta irabazten dabez, joanetorri, egote ta jatekoa dohan* dituelarik. Aurten 400 bat joango ei dira —beste urteetan baino gutxiago— iru-lau ilabetetan lan latz horrerik ekitera.

Debako errian itzaldi bat emon eban Aldabatereku jaunak «gizonaren lehen historia»-ri buruz, Deba inguruko lezetan aurkituriko lortzei* jarraituz.

«**Jaunaren Deia**» izeneko liturgiako aldizkariaren 29 gn. alea agertu barria da. Gai interesgarriak dakaz, eta euskera batuan egin da. Eskatzeotan, Lazkanora, Aita Beneditanoi.

Herri Gogoak antolaturik, euskal aditzari buruz sariketa bat eratu da. Saria 100.000 pesetakoa izango da, era honetan zatitua: 75.000 peseta lanik onenarentzat, eta 25.000 peseta epai mahaikoak lanen osoztea egin daien. Lanak bidaltzeko: Herri Gogoak, Apartado 747, San Sebastián.

Herri Gogoa argitaratzaileak aditzen emon deutso Euskaltzaindiari, begi onez ikusiko leukela epai mahaikoak jaun honeen artean osoztea, eurok sariketan parte artzen ez badabe: Lafitte, Mitxelena, Villasante, Lekuona, Iraizoz, Akesolo, Irigarai eta Mendizabal. Imamol Berriatua 20 urte baino gehiagotan lan honetan dabilena, ez da proposatzen mahairako, Gero negar egiten da «indar gutxi daukagu» esanaz, daukaguzanak haintzat artzen ez ditugularik!

«**Gazte**» izenburuarekin Erri Gaztediko ekintzaileak argitaratzen daben aldizkariaren 16 gn. alea agertu barria da. Multikopistaz dator, estudio ausartekin* ornidua ta euskera batuan idatzia.

Lezoko errian, Gipuzkoan, Gaztediaren Astea antolatu dabe JOC eta «Ongarri» taldekoak, joan dan urtarilean. Itzaldiak honetaraxe eratu dira: «Cultura popular vasca», Antonio Lekuonak, euskeraz. «Responsabilidad política y cristiana», Balenziagak, erderaz. «Relación padres e hijos», Mikel Baldak, erderaz. «Sexualidad», Angel Irigarai, erderaz. «Euskal musikea», Mikel Laboak, euskeraz. Itzaldiek ikastolan emon ziran.

Motibo berberagaitik, Madrilen bere, meza bat izan zan Jesuiten

Beasainen, euskal liburu ta diskoen erakusketa bat izan da urtarillaren bigarren igandean*, «Usurbe» zinemako atarietan. Bertan parte artu ebenak: Artza anaiak, Bandres albokaria, Oskarbi taldea, Estitxu ta Egurrola kantariak.

Itzaldi batzuek debekatu egin ditue Bilbon, Santiagoko gaztediak parrokiako saloian antolatu dituanak. Lehenengo itzaldia urtarillaren 31-an izan zan, Aresti, Lizundia ta Kintana jaunak eskainia*. Gaia, euskera batua. Entzule asko, gehienak gazteak. Ondoren, poliziako batzuek parroko jaunarekin egon ziran. Holako itzaldiak egiteko baimenik lortu ez zala ta, ezin zirala egin esan eutsen. Orain gazteak baimen bila asi dira.

Santa Agedaren koplak Euskalerriko txoko guztietan entzun dira aurtan bere, ohitura dan legez. Toki batzuetan, kartzelatuaren alde, Ikastolen alde bere bai; toki batzuetan, umeak eurak abestuten eta dirua batzen. Beste alderdi batzuetan, erriko «zereginetarako»: gaixoen-tzat, elizea barrizatze, eta abar.

Araba aldean, talde barri asko eta asko urten ei dabe, Zorionak.

Kantari barrien jaialdi bat antolatu dabil, Deustun, San Ignacio auzoko gazteak. Euren asmoa Cine Banderas-en egitea da, martxoaren lehenengoan. Baimenak eskatzen asiak dira. Abeslariaren artean, Urretxindorrek, Itxaropen, Natxo, eta abar.

Euskera batuaren oinarri batzuekin orniduta (h-dun itzak, urteko ilen eta asteko egunen izenak, eta abar), orri batzuek egin dira, erregalu gisa* zabaltzeko. Eskatu: Xabier Gereño. Avenida del Ejército, 18, 3.º Bilbao (14).

«**Otoizlari**» izeneko liturgiako aldizkariaren 55-56 gn. alea agertu barria da. Lapurdin dagoan Beloke auzuneko beneditanoak argitaratzen dabe.

«**Cien herrajes alaveses**» izenburuarekin presentatu dau erakusketa bat Gerardo López de Guereñok Gazteizen, Araba aldeko arte errikoari buruz.

«**Oskarbi**» izeneko kantari taldeak saio bat eskaini* dau, joan dan otsailaren*. Donostiako Aurrezki Kuitxaren kultura gelan. Taldearen zuzendari dan Luis Romerok egiten zituan oharrak eta kantuen itzulpenak.

Iranzo jauna, Gipuzkoako gobernadore barria, otsailaren lehenengoan, Arantzazuko santuarioan izan zan. Eliz ataurrean, Ibarrangeluko seme dan Joan Zubieta Aita Nagusiak onartu eban.

Karlistak manifestazio bat egin eben Irñean, otsailaren 8-an. Carlos Hugo ta Irenek lehenengo semea izan dabela ta, mezatarra joan ziran katedralera. Gero Castillo plaza-raino abiatu ziran, oihu batzuek eginaz; ta «Mutiko Alaiak» taldearen egontokiaren aurrean, «Oriamendi» abestia kantatu eban. Poliziaga agerturik, alde batekoak eta beste-koak alkarrerri arriak eta kolpeak botatzen asi ziran, eta oihuak bere bai. Poliziak zenbait* persona atzemon* zituan, baina laster batean askatu. Ez zan gehiagoririk izan.

elizan, Santa Cruz kalean. Gero, ohorezko ardoa eskaini zan. Jai barria bataiatzeko, Nafarroako erreketako ura eroan zan urrezko ontzietan, eta izena* Carlos Javier Bernardo Sixto Maria ipini jakon.

Laikoak emongo dabez garizumako gogojardunak, Oviédoko diosesiko 30 parrokiatan, Euren artean andrazko bat dago, eta elizatik kanpo itz egin gura dauala azaldu dau.

Laikoak, Euskalerrian bere, toki askotan asi dira elizetan berba egiten. Gauza pozgarria, gizon presutuak diranean batez bere.

Zumalakarregiren etxea izandakoa, bota egingo dabe laster, Irñean.

«**Mendebaleko*** ekonomiaren historia» (merkantilismoik 1914-erarte). Hauxe da LUR editorialetxeak argitaratu dauan azken liburua, R. Saizarbitoria. I. Sarasola eta A. Urretavizcayak egin. Hona bere aurkibidea: Introdusioa. Kapitalismo komertzialaren sortzea. Merkantilismoa, Europako teoria ekonomikoa. Industriaren errebolusioa. Monopolismoaren hastapenak, 1870-1914. Eskatzeotan: LUR, Villa Zutik, Paseo Arbola, San Sebastián.

JAKIN agertu da, guztion pozerako. Aldizkari bezala ateratzea debekatuta dauka; ta, horretarako baimena lortzen dan bitartean, liburu modura argitaratuko da. «Funtsean* berdin da», dino bere zuzendari Joan Mari Torrealdayk. Hona hemen aurkibidea: **Atarian**, Joan Mari Torrealday. **Kontzizkariaren eholuzino**, Telesforo Monzon. **Euskaldungoaren aldaketak Ipar Eskual Herria** (1900-1970). Piarres Larzabal. **Eskual Herria** Frantziarekin hartuemanetan, Janbattitt Dirassar. **Euskara eta euskal literatura Iparaldean**, Piarres Xarriton. **Ipar aldeko euskaldun gazteek zer dioten hegoaldeko Euskal Herriaz**, Daniel Landart. **Eskuara** eskoletan, Jean Haritschelhar. **Gure ekonomiaren hiru pondu**, Ramuntxo Camblong. **Gure laborantzaz edo nekazaritzaz**, Jean Louis Davant. **Euskal Herriko frantses idazleak**, Pariseko zeruan, Dominique Peillen. Eskatzeotan: JAKIN, Aranzazu. Oñate, Guipúzcoa.

Jose Miguel Barandiaran jaunak. «Folklore en el País Vasco» gaiari buruz, itzaldi bat emon dau Gazteizen, otsail* honetan, bertako «Sociedad excursionista Manuel Iradier» deritxon mendizaleen taldeak antolatuta.

Mario Gamo izeneko abade jauna, 1968-ko otsailaren* detenidua izan ondoren «El Paular»-eko komentuan dagoana, berak honan eskaturik, Zamorako espetxera eroango dabe, iru urterako zigorra betetzera. Zamorako kartzela horretan, 12 euskaldun abade dagoz.

Zarautzen, eta Caja Laboral Popular-ek antolatuta, kantu, deklamazio ta ipuin sariketa bat eratu da umeentzat, euskeraz.

Arabán, joan dan urtean, 510 hektareatan erein zan artoa. Hektarea ba-koitzean, batez beste, 25 kintal metriko. Pontevedran, ostera, 69.000 hektareatan ereiten da.

«**Xenpelar bertsolaria**» izenarekin agertu da Auspoa liburutegiaren 88-89-90 gn. alea. Antonio Zabalen zuzendaritzapean eta Ambrosio Zatarain eta Yaben jaunen ardurapean egin da. Eskatzeotan: AUSPOA, Plaza Santa Maria, 2. Tolosa.

Holandako Kristinauen Batzarra Zelibato Legearen Aurka

Jende askok bildur ebana eta beste askok itxaroten ebana gertatu da azkenik: Holandako Pastoral Batzarrak, zelibatoa apaizentzat aukerabide bezala ta ez lege nahi dau.

Ezin dau inok oraindik neurtu, erabagi ta eskari honek biharko egunean ze garrantziko modu barriak ekarriko dituan. Gaur ez dogu hau baino ikusten: eskari hori ekin-tzara eroaten danean, ausita gelditu dala hainbeste gizalditan katolikoen artean egon dan lege ta ohiturea: apaizak ezkondukoak izatea. Honek guztiz aldatuko leuke gure artean apaizei buruz egoan ustea.

Auzi hau, egia esan, ez da Holandakoa bakarrik, mundu osokoa baino, azken urte honetan alderdi gehienetan aztertua izan da ta. Milaka itzak esan dira, milaka orrialde bete, alde batzuetan, aurka besteetan. Azkenik, Holandan, zurrumuru ta bakarrizketatik urten dabe eta agirian mintzatu* dira, munduaren aurrean. Horixe, munduaren aurrean, mundu osoa eurei begira euki dabe ta.

Ta esan egin behar da: ez da inor arritu eskari hori egin dala ta.

Holandako Pastoral Batzarra asi zanetik, ikusten zan ez zala izango orainarte izan ohi diran batzarrak lakoak. Ez zan tramite edo burokrakeria utsa. Ez egozan alferrik batzarrean irurogei laiko, euren eritxiak agertzen ikasiak. Horregaitik, asiera asieratik batzar hori test eta proba bat izan da. Ta ondo goitu* dabe probea. Ez da ezer atzean itxi. Gauzak aurretik artuak izan dira. Alderdi hareetako kristinauen izpiritu ausari* eta irigiaren barri ekien guztiak, zihur egozan batzar horretan problemak zorrozki ta bildur barik aztertuko zirala.

Holandako batzarrak, lau saio edo jardunaldi izan ditu oraingo hau baino lehen. Mila kezka ta zalantza* gelditu dira honezkero atzean. Baina oraingo batzarraldi honek, gori gori itxi ditu gauzak, askoren eritxian. Ta guztia, erabili dan gaigaitik.

Ta zegaitik ikutu da gai hau memento* honetan? Gehiago atzeraka joanez ezin egon eitekelako. Mundu osoan egoan egonezina ta aserrea, gaia argi argian agertzen ez zalako. Han eta hemen asko egozan prest, problema honeri erantzun personal

bat emoteko, aginduei jaramonik egin barik. Hain zuzen bere, legea dala ta, ezin leiteke beti zain egon legea ea noiz aldatuko, hainbeste gizonek dauken problema gordinari zelan edo halan erantzun bat emon barik. Gaur egunean batez bere, bakoitzaren askatasunak eta auke-ramenak hain garrantzi aundia daukanean, eta Elizan bertan gizona oinarri bezala onartu danean. Ta bestalde, gogoan izan behar da, gaur egun zirkunstantzia bereziak* bizi ditugula, zelibatoa lege egin zaneke zirkunstantzietatik guztiz ezbardinak. Zelibatoa antropologia

Honeexek dira numeroak. Otzak agirian, baina mamin asko daroe barrenean. Egia da, botazino* honenek ez ziran lege indarrekoak, jendearen pentsamentua ta proposamentuak jakiteko baino. Baina edozeinek daki, honaino elduta, gauzea ez dala inkesta* utsean edo botazinoetan geldituko. Gotzainak beste bilera* batzuek egin ditue euren artean, zer egin erabagiteko; baina mundu osoak espero dau, botazinoetan agertu dana aurrera eroango dala.

M. OTAMENDI

MINI-LITURGIAK

Ezin ukatu modernizatzen ari* gareala. "Mini" itza, saltsa guztietan sartzen dogu: mini-gonak, mini-gizakiak, eta orain... mini-liturgiak. Hori baino besterik ez bada, gauza gutxi, alajainetan*! Halan bere, antzinako itz zatarrak baino dotoreagoa da. Lehen, makro-liturgia edo mikro-liturgia esan ohi genduan. Gerkerazko kulturatik latinezkora pasatu gara, beraz*. Pausu barri bat egin dogu, nahiz eta hori berori be erdizka egina izan. Gure umeen umeak elduko dira euskal izakera utsezko kulturara.

Gaur gertatzen jakun guztia, zorionez gertatua da, nahiz eta guk sarritan madarikatu une hori. Halan beharrez, edo bizitzea horrela dalako, edo horrela nahi dogulako, gure bizitzea giro barri batean sartu jaku. Erri batean lo, bestean jan, beste batean lan, laugarrenean adiskideak. Eta zein da nire erria? Donostia? (!) Lazkano? (!) Itxasondo? (!) Ezin erantzun. Oso erraz, errazegi litzake beste harek bezala erantzutea: mundua da nire erria. Gaurkoz, Euskalerrria dala esan daigun.

Euskal Elizeaz beste hainbeste dinot. Ez dakit zein parrokiatakoa naizanik. Eta gauzak dagozan bezala, jakin beharrik bere ez. Gure Elizea pekatari legez agertzen jakun bitartean, Euskalerrriko Eliza pekatarian sinestuko dot. Aitormen hori, gure Elizearen aintzarik ederrena dala esango neuke.

Erri txikirik ez daukadan bezalaxe, eta parrokiarik ez dodan ezkerok, Erri osoa da nire erria, eta parrokia guztiak nire parrokia. Hor nabilkizue, beraz*, erriz erri, parrokia batetik bestera.

Ta hemen asten da nire kezkea. Liturgia bizitzeko, era eta kera asko ikusi ditut. Gehientsuenak, bapere gatzik bakoak. Horrexei deituten deutset nik "mini-liturgia". Salazino* horretatik ez da inor libratzen. Mini-gonak, batzuetan behintzat, zerbait polita erakusten dabe; mini-liturgiak ezer bere ez. Gure liturgiak, askotan, sarriegi, ez dau itxuririk bere gorde. Abade eta kristinau-erri batzuek ez dabe pausu bat bakarrik egin.

Askotan gogoratu ditut, "Erleak" izenarekin. Pasaiko neska bikote gazteak abestuten dituan itzak: "Mezatarra joan gabe, gizona izan diteke; nortasunik gabe, ez dago gizonik". Aurrerago joango nintzake ni. Gure liturgiak, gizatasuna eta nortasuna ukatzen deuskula dirudi. Hain txiroa, hain txikia, hain otza!

Gai hau, beste batean, zehatzago erabiliko dot; halan bere, gaur, nahiz eta azaletik, zerbait esan gura dot.

Guztiaren txosten gisa*, hauxe ipiniko dot: maxi-elizea, mini-liturgia. Nire ibili-beharrak erakutsi deustanaren egirik nabarmenena dot hori. Zenbat eta elizea andi-agoa, hainbat liturgia kaxkarragoa. Ez dot gero esan nahi, gure erri eta eliza txikietan dana ondo egiten danik. Eliza andietan, jende gehiago bai; horrek ez dau girorik egiten. Batzarrak, oso otzak gertatzen dira; aspergarriak. Beti abesti bardinak; zaharrak. Abadea, urrunegi. Irakurleak, besteentzat irakurten ez daki-ena. Ez dago berotasunik. Eta hori guztia, izlaria aipatu barik...! Begiratu batez, hauxe ikusten da: amaren bularrean edaniko ohitura

baten azken maila dirudi. Sokea noiz etengo zain gagozala nabari* da. Gero ta gazte gutxiago ikusten dogu. Gero zer?

Eskandalizatu geintekoz Holandako abade, gotzain eta kristinau-erriaren esijentzietaz; baina eskandalu hori beste guzuz bat baino ez da izango, gure liturgiak beste bide barri batzuek urratzen ez dituan bitartean. Abadeen apaizgintzeak ez dau indarrik izango, erriaren apaizgintzeari tarte gehiago emoten ez jakon artean. Gure liturgia ez da osotasunera elduko, abadeak dana egin nahi daben bitartean.

MARKOX AMUNDARAIN

ANAITASUNA

BIZKAIA, Amabosterokoa, 4
Zuzendaria: Angel Celayeta Guisola.
Jabea: Kantauriko Frantzizkotar Irugarrendarrak, Durangon, Intxaurrondo, 3.
Idazkola ta banakola: Bengoetxe, 33-b. Galdakano. Tel. 396 eta 397.
XVIII-gn. urtea. 183 zenb. 1970,
Otsailak, 28.
D. L. Bi. 1.753-1967.
Inprimatzen dau: Imprenta IDEAL-ek, Galdakanon, Bengoetxe, 70.
Irtitzen dau: RALI.

Aita Eskolapio Langile bat

Bilboko aita eskolapioen kolejioan egin neban nik ba-
txileratoa. Ez jat inoiz ahaztuko kolejio ha eta han izan
nituan irakasle on asko bere. Gaurko lan honetan hareetako
bat aipatu nahi nueke zeuen aurrean, bere barri jakitea
komeni da ta.

Aita eskolapio hau urte askotan egona da erbestean.
Eta, Euskalerritik kanpoan egon dalako, euskera ez gal-
tzeko eta erriko jatorria agortu ez ekion, asi zan batzen
hortik eta hemendik, liburu zaharretatik, errebistetatik eta
beste hainbat tokitatik esaera jator, euskal mamina eta
zentzua nabari* eukenak. Hainbeste urteren ondoren, uzta*
izugarria lortu dau: ehun mila esakune jator baino gehiago.

Zetarako esan zenbat baliotakoa diran euskaldunontzat
esaera honeek, geure izkuntza obeto berba egin gura ba-
dogu? Euskaldun barriko, asko eta asko ikasiko geunke;
eta beste horrenbeste, euskaldun zahar alfer batzuek bere.

Baina aita eskolapio honek ba ditu bere eguneroko lan
bat: mutikoei frantses izkuntza irakastea. Honetan dihardu
jo ta ke, bere Ordenako erregelak beteaz, hau da, esane-
kotasuna, obediencia. Eta frantses klaseak emoten dituan
artean, bere urteak joan egiten jakoz (honezkero irurogei
urte baino behiago ditu) eta, antza, ez dau sekula ikusiko
bere ahaleginen frutu eldua.

Nik neuk hauxe pentsatzen dot, ez ote dagoan beste
aita eskolapiorik frantses irakasteko, aita hori euskerarako
itxita. Izan bere, lotsagarria da pertsona jakintsu baten
bizitzea bere gogoko ez dan lan batean itxitea.

Eskolapioak ez dakie zer dauken nik esandako aita
euskaltzale horregan. Orain, Euskalerririk hainbeste lagun-
tasun, eta euskal kulturak hainbeste lan behar dituan
kezkatu honetan, halako pertsona bat horretarako ez libe-
ratzea benetako krimena iruditzen jat. Pentsa beie, Eus-
kalerririk noizbait juzgatuko dituala eta ez dala goxoa
izango epaia.

Iztegi hori oraindik atera behar da, egilea bera bizi
dan artean, gerora itxaroten egon barik. Nik neuk laster
botako neuskioe ahurpegira eskolapioei Euskalerrirengana
euki daben ardura gutxia, iztegi hori egin barik itxiko
balebe.

Horrêlako pertsona batek ez dau zetan bere denbora
galdu behar frantses irakastaldiak emonaz, horretarako
beste asko dagoz eta. Gizon horrek zinez* eta bene benetan
bere bizitzako lan horri ekin behar deutso, beste barik.
Azkueren lana baizen aundia izango da iztegi hori, duda
bage, are* aundiagoa eta probetsugarriagoa ez bada orain-
dino!

Ene gogoia litzake, aita eskolapioak, nagusiak behin-
tzat, nire eskari hau entzungo balebe; baina beharbada
ametsetan ari* naiz eta ez dira konturatuko. Halan bere,
geroak, bakoitza juzgatzean, ez dau errukirik eukiko, nor-
beraren utsak eta eginik ezak ikustean.

Baina nik uste dot, holan nahi dot gutxienez, eskari
hau ahal daukanarengana elduko dala eta Euskalerriri osoak
eukiko dauala zegaitik eskerrak emon bai aita eskolapio
horri eta baita bere nagusi zintzoei. Halan bedi!

XABIER KINTANA

Euskaldunon batasuna

1

Euskerarentzat aurtengo urtea
gertatu zaigu bikaina.
Noizbait behar ta, hasia dugu
batasuna, alajaina!
Hizkuntza, berez, nahiz ta izan
munduko edozein aina,
euskalkietan guk puskaturik,
ebakita zeukan zaina.

2

Hori zala ta, jakintsuenak
bildu ziran Arantzazun,
erabaki batzuek hartzeko
lan eginaz gau ta egun.
Euskaltzaindiak horretarako
erraztasuna eman zun,
bakoitzak bere ikaskizunak
hantxen agertu baitzitun.

3

Iritzi mota asko izanik,
aukeratu beharra zen:
erdi bide bat aukeraturik,
bertan aurreruntz jo zuten.
Erabaki batzuek hartzera
ere noizbait heldu ziren:
idazkera bat erabakita
utzi ziguten hain zuzen.

4

Hori guztia egin ondoren
dator negargarriena,
Euskaltzaindiko eta kanpoko
batzuek ari direna:
Hatxe dala ta bestea dala,
aitzakiz beterik dena;
erabaki hoiek betetzeke,
nork bereari jarraipena.

5

Urte batzuek ba daramazkit
euskera irakasten nik,
beste hainbat bezala beharrak
bultzaz bide horretatik.

Ibon Sarasolaren "Poemagintza" dala ta zenbait eritxi

Artu barria dot "Lur" editorial etxearen azkenengo
alea. Oraingoan, Ibon gaztearen lana azaldu gura izan
deusku. "Poemagintza", bere izena. Ez da nire asmoa haren
poesia aztertzea. Halan ta guztiz bere, txalagarria poesia
arloan Ibonen bide barriak irigi nahia. Bildur naiz, barrie-
giak izanik, askori gutxi esango ote deutseen. Esplika nadin.

"Lur" editorialaren asmoa, euskaldun guztiokana eltzeta
izango da nonbait. Egia esan, orainarteko liburuekin lortu
dauala uste dot elburu* hori. Baina ale barri hori, euskal-
dunon arteko minoria batentzat egin dalakoan nago. Mi-
norria horrek lehendik bere ezagutzen dauala uste dot Ibon.
Besteak lehen bezala jarraituko dabe aurki*. Espru ez
dabe katalandar guztiak ulertuko, nire eritxian. Horregaitik
Espru ez dau itxiko bere poesigintza. Baina konpara-
daiguzan katalandarren kultura bideak eta gureak. Alde
aundia aurkituko dogu, haren mesederako. Danok dakigu
euskal liburuak banaka ateratzen dirala. Gauza okerra li-
tzake, urritasun hori ikusita, minoria batentzat egin izatea.
Baina izan gaitezak praktikoak; bestela Ibonen lana, aife-
rrikakoa izango da eta liburutegiko zokoren batean sitsak
joko dau.

«Gaur eguneko herriak
ene hitzak onartzen ez
baditu,
biharkoari mintzatuko
naiz edo
etzikoari».

Poetak, ulergatxak izan dira historian zehar. Begira zer
inoan* Lamartine-k:

«Gémir, pleurer, prier est également lâche.
Fais énergiquement ta longue et lourde tâche
dans la voie où le sort a voulu t'appeler,
puis, après, comme moi, souffre et meurs sans parler».

(Hiretzat, Ibon)

Euskalerrian horixe berori gertatu jako Iboneri, zori-
txarrez. "Biharkoari mintzatuko naiz, edo etzikoari". Ibon,
beranduegi ez al da izango? Frantzian, Rimbaud-en aurre-
tik bere, kultura errime bat egoan. Euskalerrian ez dau-
kagu oraindino. Gaur eta hemen bizi gara; beraz*, ekin
gaurko ta hemengoari.

Eskari bat egin nahi neuskioe "Lur" editorialekoei:
begira pixka bat praktikotasunari. Bestela, Ibonen "rea-
lismoa" utsean geldituko da ta. Beharrezkoa dogu poesia.
Baina ez ote dogu aurreragorik euskal kulturari?

EÑAUT ZOTALETA

Ikasleeri gauza zihur bat
aurrean ezin jarririk,
atsekabez igarota dut
neronek une larririk!

6

Orain zerbait zihur danean,
atzerakoi jokaerak:
negargarriak dirade, jaunak,
honelako gertaerak.
Lehen baietza emandakoak,
orain ezetzean eurak:
holakoekin ez du lortuko
behar dun mailik euskerak.

7

Astekari eta hileroko,
dei dagizuet hemendik,
batasun idazkera hartzeko
ahal duzuten lehenenik.
Ikastekoak ikasi eta
behin betiko baturik,
hizkuntza hau gora jasotzeko
garaian gagoz oraindik.

8

Beste zenbait gaitan bezala,
gazteak du azken hitza.
Gaztedia behar du gerora
egingo diona bultzatza.
Gaurkoz euskera batuan alde
gaztedi osoa datza;
horrela bakarrik batu leizke
herria eta hizkuntza.

ANDONI SARRIEGI

“Euzkal Elerti - 69”

Liburuaren asieran, Juan San Martinen saiaera edo entsaio bat dator, gaia euskerea dala. “Euskaldun zertarako?” itaunarekin asten da; eta Unamuno ta beste euskerearen kontrakoei erantzuna emon nahian, San Martinek sakon eta garbi jokutzen dau euskerearen alde.

Arrazoiä dauka San Martinek, 30 gn. orrialdean zera esaten dauanean: “Oraindik zenbat lan egin beharra dogun ardi larruz jantzitako otsoen* kontra”.

Orain ilabete batzuek dirala, eztabaida bat sortu zan ZERUKO ARGIA-n euskereari buruz. Batzuek esaten eben, euskerea galduta bere, gure erriak Euskalerrri izaten jarraituko ebala. Beste batzuek, ezetz, Eta San Martin, azken honeen alde agertzen jaku. Horretarako, arrazoi on bat emoten dau, nire ustez: “Hizkuntza ez da elkar adierazle bat bakarrik, baizik pentsatzeko tresna ere bai” (57 gn. orrialdean). Eta, jakina, euskerea galtzen badogu, eta euskerea pentsatzeko tresna ba bada, ezin pentsatu izango geunke euskaldun legez, eta euskal pentsakerea galdu egingo geunke.

Euskera batuaren alde, ta euskerea eskoletan sartzearen alde dator San Martin. “Lastima gure estudianteari beren asignaturetan ez erakustea. Ezagutu gabe, zelan maitatu? Ikasi gabe, zelan jakin?” (70 gn. orrialdean).

Saiaera eder hau, Arestiren itz batzuekin amaitzen da: “Bakeak euskerari kalte egiten bait dio”, eta Azurmendiren poematik artutako itz honeekin:

“Ba zijoan egun batez nire herria
bizitzaren bidetik... Eta gizonak,
elkar begiratuaz, esan zuten:
Ba dugu bake: jarri.
Inork ez zuen erantzun:
hilda zegoen herria.”

Saiaera honen jarraian, Xabier Kintanaren nobela bat dator, “Beste Izakia” tituluarekin.

Orain, zuentzat lan hau idazten nagoanean, gaueko amaia-kak dira. Telefonoa artuta, Kintanarekin itz egin dot, eta hara zegaitik.

“Beste Izakia” nobela honek, irudimenezko zientzia eta misterioa erabilten ditu, biak batean. Nire ustez, nobela ona da; baina Kintanak humilki esan deust, ez dagoala beragaz osorik konforme, eta beste lau obeagoak daukazala.

Nobelean asieran, gizon bat ilten da, eriotzerik bildur-garrienarekin. Nobelean amaieran, beste eriotze bat. Itzaila nor?

Ni ez noa hemen, nobeleari buruz gehiago esatera. Irakurriko dozuenei kalte egingo neuskizue, misterioa aurretiaz argituz.

Baina, nobelea amaituta, itaun bat geratzen jaku erantzunik barik: *Urlia** (ez dot izena aipatu nahi) ilda gero, zer jazo zan super-erlauntzarekin*?

Orain, gaueko amaiketari, horixe galdetu deusat telefonoz Kintanari.

Kintanak, barreka:

—*Liburuari, hori ilun geratzen da. Ez da horri buruz ezer esaten.*

—Bai, ba dakit, erantzun deusat. Baina, nik legez, askok egingo dabe itaun berbera; eta zuk, nobela horren idazlea zarean ezkerro, berorren planteamentu osoa eukiko dozu urrean*. Erantzun eidazu, ba.

Bere erantzuna, hauxe izan da:

—*Nobela honetan erleekin jazoten dana, gure artean jazo leiteken gauzea da. Eta nobela honetan, Urlia ilda gero, erleak munduaren jabe izatera eldu ziran, edo izateko bidera behintzat.*

Kintanaren nobeleari liburuaren 254 gn. orrialdean eltzen gara, eta oraindino beste horrenbeste daukagu aurrean.

Salbador Garmendiaren “Historia Triste Bat” antzerki famadua dator urrengo. Drama hau zer dan ez noa esatera, zuetariko askok antzerkian ikusita daukazue ta. Baina esan daigun, euskal teatroko Lehenengo Sari bat irabazi ebala, eta orain, astiro, zeuen etxeetan, irakurteko aukerea izango dozuela.

Gero, “Makina” tituludun iru egile gazteren teatro lantxu bat, atseginez irakurten dana; ta jarraian, Gabriel Arestiren “Beste mundukoak eta zoro bat”. Arestiren lan honetan, San Nereo, deabruak eta neba-arreba batzuek agertzen dira. Euren artean zelango nahasteak sortzen diran jakiteko, irakurri egin behar dozue lan hau, eta zeuok erabagi benetako zoroa nor dan: ala zorotzat eukitakoa ala besteak.

Aurrerago, Bilboko Ekonomiako Fakultatean joan dan urtean egindako sariketan lehenengo geratu zan-Kintanaren ipuina, ta beste idazlan on batzuek.

Sariketa honeri buruz esan daigun, sari bi eskaini* ziala: bat euskerazko lanentzat, ta beste bat gazteleraz egindakoentzat. Mahaiburukoak, Gabriel Aresti, Angel Zelaieta (ANAITASUNA-ren zuzendari orain dana) eta neu ginan. Ogetalau lan geunkazan esku artean; eta euretarioko dozena bat inguru, bata bestea baino obeagoak ziran. Azkenean, erabagi bat artu behar; eta Kintanarena iruditu jakun onena, izkuntzearen aldetik eta gaiaren originaltasunagitik balio andikoa zalako.

“Euskal Elerti 69” liburu andi ta eder hau artu nahi badozue, eskatu zuzenbide honetara: Editorial Lur-Villa Zutik-Paseo Arbola-San Sebastián. Bere prezioa, suskrito-reentzat 100 peseta, ta besteentzat 200.

XABIER GERENO

Euskaltzaindiaren araudi zaharrak dinoana batasunari buruz

Lehen partearen 6-gn. kapituloko aurren zatiak dino:

“Ekingo du euskalki oroen odollez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-yoskeraz ta idazkeraz al bait erabatetsuena, euskaldun guztiak idatz-irakurketan erabiltzekoa.”

Eta bere itzulpena:

“Trabajaré preferentemente en la formación de un lenguaje literario unificado en léxico, sintaxis y grafía, que nutriendose de la savia de todos los dialectos, nos permita disfrutar de una literatura común.”

Araudi barrian

Lehen partearen 5-gn. kapituloren aurren zatian:

“Prestaré preferentemente ayuda a la fijación de la lengua literaria; uno de cuyos medios habrá de ser la fijación (por parte de la Academia) y orientación de los escritores actuales respecto a los me-

jores textos del euskera escrito”.
H letrari buruzko lehen erabakia

Euskera, I-ko urtea (1920), I zenbakia, 64-gn. orrialdean (1920-urtarrilaren 8-ko batzar agiria):

H letrea, konsonante artean, besteekin batean onartzen dau. Eta, dino:

“Beraz, Euskaltzaindiak beretzakotu duan euskal abeze auxe da (eta bokalen ondotik jartzen dau konsonante zerrenda, honean artean H ere bai. Eta bukatzeko, jarraitzen dau, esanaz): “Euskaltzaindiak gure izkerazko idazle guztiei eskatzen die arren, ahal dalarik beintzat, idazkera auxe, ta besterik ez, erabili dagiela”.

Urteetan zehar, argitasun ahaleginean ta borondate obeagoan urrutakako pausoak, batasunaren bidean, honexek dira, beste batzuen artean. Euskalerrriaren historia mingotsean jarritxi diran aurrerakuntza horreek ez onartzea, gure uste apalez, arrazoiaren indarrari kontra egitea da.

Manuel Lekuona, Euskaltzaindiaren Lehendakariak, itzaldi bat egin dau, bere zereginaren irugarren urtea kunplitzean, Euskaltzaindikoak entzule zituela. Arantzazuko batzarra bukatu* baizen laster —Arantzazuko batzarrean euskerearen batasunerako bideak asko urratu ziran— batzuren batzuek izugarritzko pozez asi ziran, hango erakutsien “konklusioak” mundu guztiari ezarri beharrez. Lekuona jaunak, oster, *epea** eskatzen dau bere itzaldian, Pompeu Fabrak Katalunian bezala, gauzak patxadaz egiteko. Euskaltzaindiari neutraltasun bat eskatzen deutso, eta Arantzazun artutako erabagiak “normatiboak” dirala ta ez “prezeptiboak”.

Aspaldi batean batasun bidean serioski lortutako pausak ez ditu betetzen Lekuona jaunak itzaldian, nahiz eta ezina dan neutralidade bat eskatu.

TALDE BATEK

IPAR EUSKALERRITIK

GURE EKONOMIAREN IRU PUNTU

(Lehenengo zatia)

Hemen presentatzen dogun lan hau egitean, gehien kostatu jakuna zifrak batzea izan da. Gauza guztiz gaxta da, izan bere, Ipar Euskalerriaz estudio sakon bat egitea, estadistika ofizialak egiten dituan INSEE etxearentzat Euskalerririk ez dago ta.

Lan hau asiera bat baino ez da, beraz*. Iru puntu aztertu nahi izan ditugu, gure ustez geroari buruz premiatsuenak: demografia, industria eta Ego Aldearekin ditugun artuemonak.

Gure iturburuak honeexek izan dira: INSEE-ko kole-

zinoak, G.E.T.I.S.-ko lan bat (Ego Aldeari buruz) eta batzere Enbatak egindako azterketak (Davant, Aita Larzabal, Etxemendy, Goyenette...). Esan bere egin daigun, Baionako "Chambre de Commerce et d'Industrie"-k asko lagundu deuskula industriako gauzetarako.

Iru estudio honek irakurri orduko, gogoan artu behar dira zifra honeek (1962-koak).

Probintziak	Eremua*	J E N D E T Z E A	
		Danetara	Km.2 Bakoltzeko
Lapurdi	800 km. ²	152.000	190
Bæra Nafarra	1.284 "	35.000	27
Xuberoa	785 "	20.000	25
Danetara	2.869 "	207.000	72

Iru probintzia horreetaz gainera, beste zati bi aipatzen ditugu hemen:

— Kosta edo itsas aldea (Baiona, Biarritze eta Donibane

Lohitzuneko kantonamentuak).

— Barrua edo mendi aldea (gelditzen dan eremu* guztia).

I. D e m o g r a f i a

Ipar Euskalerriko jendetzearen gora-beherak azken 150 urteotan.

Urteak	Jendetzea
1801	126.493
1851	162.365
1881	167.317
1901	173.351
1911	182.002
1921	175.955
1936	190.833
1946	192.989
1954	193.542
1962	204.425
1968	218.099

Estadistika honeek, geuk eginak dira, INSEE Frantziako etxe ofizialak agerturiko liburuetakoz zifrekin. Oso gaxta izan da lan hau egitea, etxe honentzako ez baitago* Ipar Euskalerririk, departamentuak (guretzako Basses-Pyrénées-koa) eta kantonamentuak bakarrik haintzat artzen ditu ta.

Danok dakigu gure demografiaren karakteristikak bat emigrazinoan dala, Hona hemen zifra batzuek.

Emigrazinoak XIX gn. mendean

Louis Etcheverry, Garaztar kementsuak, estudio bat oso baliotsua egin eban, Euskalerrri barruko diputadu izan zan denboran. Hona hemen estudio sakon horrek ekarten dituan zifrak, Bertan ikusten dogu, 60 urtetan kasik 80.000 emigrante atera zirala Euskalerritik! Denbora berean, 1832-tik 1891-erarte, 4.729 arimaz baino ez zan gutxitu hemengo jendetzea. Umeak ugari ziran eta gure Erriaren indarra arrigarria.

Urteak	Emigranteak	Urtero
1832-1835 (4 urte)	828	208
1836-1845 (10 urte)	10.162	1.016
1846-1855 (9 urte)	16.111	1.614
1856-1864 (9 urte)	12.833	1.425
1865-1874 (10 urte)	17.750	1.775
1875-1883 (8 urte)	5.157	273
1884-1831 (8 urte)	16.421	2.052
Dantera 60 urtetan	79.262	1.321

Beste gauza bat ikusi geinke: 1836-tik gora, emigrazinoan andiago izan zala. Ba dakigu, lehenengo karlistadearen ostean, ekonomiaren mugea Ebrotik orain dagoan tokira ekarri ebela, eta Ipar Aldeko ekonomiak kolpe gogor bat artu ebala, aldakuntza hori zala kausa. Gazteak bizibide gutxiago euken hemen, eta Ameriketara joaten ziran.

Bistan da, Ipar Euskalerrian, Europa guztian bezala, industria leku ta urietarantz abiatu zirala denbora horretan baserritar gazteak. Baina uririk ez genduan eta industria gutxi.

Emigrazinoak XX gn. mendean

1. Garazi-Baigorri eta Amikuze-Ostibarren

Aita Grandin ekonomistek, toki horreetako gizon azkar batzuen laguntzearekin egin ditu eskualde* bi horreetaz, barru edo mendi aldeari buruz ezagutzen ditugun estudioeririk onenak. Hor ikusten da eskualde bi horreek, 1954-tik 1962-rarte, *bakoitzak* 1.100 bat bizilagun galdu dituela.

Denbora berean, 1.000 bat inmigrante sartu dira eskualde horreetan, edo beste euskal errietatik, edo kanpotik.

Esan leiteke beraz*, Aita Grandinek berak dinoan legez, 8 urtetan 1.500 bat emigrante izan dituala *eskualde bakoitzak*. Kanpora joan dan jende gehiena, gaztea zan.

Beraz emigrazinoaren ritmoa, XIX gn. mendekoaren bardin antzekoa da.

2. Kosta aldean

Arrigarri dana, Baionako Ingurua, jubiladuakaz, barruko Euskalerritik etorritako jendeagaz eta 1962 inguruan Algeriatik eldutako "Pied Noir" edo "Zango Baltz"-ekin asko gehitu baldin bada bere, bertako jendea, bertako gazteak igesi doaz Frantziako uri andietara. Hona hemen zifra arrigarri batzuek.

1954 eta 1962 artean, 9.500 bizilagunek itxi dabe Baionako eskualdea. (Danetara, 95.183 bizilagun ditu).

Hona hemen emigrante horreen adinak:

20-tik 45 urterarteak	55 %
44 urtetik beherakoak	85 %

Donibane Lohitzuneko kantonamentuan bardin.

1954-etik 1962-ra, jendetzea 600 bizilagunez gehitu da *urtero*, baina debora berean *urtero* 100 gaztek iges egin dabe Euskalerritik kanpora.

Beraz*, Ipar Euskalerrri *guztia* jotan dau min berak Ikaragarriko min biziak! Jende gaztearen emigrazinoak! Lerro honek idazterakoan, aurrean izan dogu, barruko Euskalerrian Euskaldun Gazteriak aurten egin dauan inkesta baliotsua. Hor irakurten dogu, 1968-an, 15-tik 20 urterarte gazte guztietarik 9,3 % joan dirala errikan kanpora.

Hona hemen, 20 urtetik behera eta 20 urtetik gora gelditzen diran gazteak zelan banatzen diran barruko Ipar Euskalerrian.

20 urtetik behera

20 urtetik gora
mutilak 34 %
mutilak 21 %
neskak 33 %
neskak 12 %

Beraz, guztitara, ba dira 67 % 20 urtetik beherakoak, eta 33 % bakarrik 20 urtetik gorakoak. Diferentzia andi horretan ikusten da zenbatek iges egin daben lan bila.

Noizarte iraungo ote dau, horrenbeste gazte gaitzen dituan Erri ahulduak*?

RAMUNTXO CAMBLONG

("Jakin" sortatik bizkaieraztuta)

ONGARRI Pentzuak

SARB - en ardurapean eratuak

Pentsatu ondo ta pentsutu ondo zure ganadua.
Burubako egina, alperreko ekina.
ONGARRI-k, barriz, buruz egiten ditu pentsuak.
ONGARRI pentsuak ezagutzen ez badozuz, probatu eizuz.

Egazti, txarri, koneju, txahal gazte, esne-behi, aragitako txahal: danentzako pentsuak, bakoitzari dagokiozanak. Baita ALIVO esne autsa be txahal txikientzat.

Eskatu gure banatzaileari edo zuzenbide hontara:

ONGARRI, S. A.

piensos compuestos

Valle de ACHONDO (Vizcaya) - Telefono 11



IMPRENTA IDEAL

idazkirik onenen

zerbitzurako irarkola

Bengoetxe - GALDAKANO

EUSKAL ABESTI BARRIAK DISKOETAN

**Bittor
Egurrola**

GERNIKAKO ARBOLA - ANDEREÑO - 24 URTE

Andoni

KARRAXI - ZURE ULEAK

Diskoetxe guztietan salgai

Egilea: **CINSA** - AVDA. DEL EJERCITO, 18, 3.º
BILBAO-14

FUNCOR, S. C. I.

Gaurko baserritarrak behar dituan


Trituradora - Errota - Naastale - Zerra - Uraga - Uraska

Europako aurrerapenik onenak, hemengo baserritarrentzat

Adi ta gomuta FUNCOR

ELORRIO - Telefono 114

Sony da
ametsaren izena



**Telebistarik
arinena,
Eskurakoiena
(Atzamar bategaz
eustekoa)**

SONY edozein tokitarako
da
SONY, 4 kilo 1'erdikoa
SONY, 9 arrako pantaila-
laduna
SONY, iru senti-giltza-
duna
SONY, aurrean jarritako
abots gehitzaile duna
SONY, tximist - indarrez
nahiz bateriaz
erabiltekoa
SONY,-k lau letra ditu:

SONY

Bilboko ordezkari: **J. M. Lara** - Fica, 8 - Tel. 23 96 42

Donostiako ordezkari: **A. Mendizabal Obanos** - Peña y Goñi, 5 - Tel. 10 811

Division Audvisual: Telebista aparatuak, magnetofono ta
videotape-rako ornidua.

Division Sobax: Elektro kalkulatzalle eskurakoak.

EUSKALTZAINDIAREN ETXEA BARRZTATZEKO DIRU LAGUNTZA

Agustin Zinkunegi (Andoain)	400 "	Jose M. ^a (Bilbo)	500 "
Jose Atxa (Bilbo)	500 "	Xabier Arginzoniz	5.000 "
Cinsa	10.000 "	X. X. (Bilbo)	500 "
Xabier Gereño (Bilbo)	5.000 "	Bernardo Ibarra (Bilbo)	100 "
Jose M. ^a Basterretxea (Gernika)	500 "	Jose M. ^a Gallastegi (Deusto)	150 "
Eleuterio Basterretxea (Gernika)	500 "	Julian Agirre (Gazteiz)	500 "
Venancio Galarraga (Bilbo)	5.000 "	Franzisko Agirre (Gazteiz)	500 "
J. I. Z. A. (Bilbo)	2.000 "	Pedro Obieta (Bilbo)	5.000 pta.
Gumersindo Andonegi (Deba)	500 "	Nikolas Madariaga (Bilbo)	1.000 "
Joseba M. ^a Garate (Bilbo)	1.000 "	Gaizka Irazabal (Gernika)	100 "
Ignazio Atxa (Bilbo)	300 "	Gabriel Irazabal (Gernika)	100 "
Emilio Galzusta (Bilbo)	1.000 "	Pedro Mendia (Gernika)	500 "
Banco de Bilbao	10.000 "	Martin Irueta (Gernika)	500 "
Juan Hormaza (Bilbo)	1.200 "	Joseba Abaroa (Mungia)	500 "
Begoña Petralanda (Bilbao)	200 "	Julian Herrero (Bilbo)	500 "
Felipe Telleria (Galdakano)	200 "	Luisa Mendiguren (Bilbo)	500 "
Felipe Olazaran (Bilbao)	100 "	Emilio Anthonissen (Bilbo)	1.000 "
Florentino Sagarra (Mundaka)	100 "	Fundación "Iturriaga" (Erandio)	10.000 "
"Un menés" (Valle de Mena)	110 "	Felix Bergara (Eibar)	100 "
Roberto Diaz (Bilbao)	500 "	Jesus Egizabal	100 "
F. Artetxe (Gernika)	200 "	Lidia Bermiosolo (Lekeitio)	100 "
Koldo Anakabe (Ondárroa)	100 "	Jose M. ^a Aurre	1.000 "
Ormaza Anaiak (Bermeo)	1.000 "	Mertxe Diaz (Bilbo)	150 "
Julián Ugarteburu (Amoroto)	100 "	Jose Aldazabal (Bilbo)	1.000 "

B E R B A K

(Ale honetan izartxu bategaz agertzen diranak)



Bizkaierazkoak

ARAKATU, aztertu.
 ARRESI, arrizko esi, muro.
 ARROBI, arria ateraten dan obi, cantera.
 ATZEMON, detener.
 AURKI, nonbait, urrean, seguramente.
 AUTESKUNDE, elección. (Berba bärria).
 AZOKA, feria, mercado.
 BAITAU, bait dau, dau ta.
 DOHAN, gratis.
 EGITURA, erakunde, estructura.
 ERALGI, gastatu.
 EREGI, eraiki, jaso.
 EURREZ, oparo, ugari.
 GOITU, superar, vencer.
 INAUSI, podar.
 INOAN, esaten eban.
 ITUNBEN, tratado, acuerdo.
 JOMUGA, asmo, fin, objetivo.
 LORRATZ, huella, vestigio.
 ORATU, eutsi, eldu.
 SALAZINO, acusación.
 SANTZO, irrintzi.
 UDALETXE, Aiuntamentu etxe.

Euskera bateratukoak

AHULDU, makaldu.
 ARE, oraindino.
 ARI IZAN, jardun.
 ARROTZ, extraño, forastero.
 AUSART, atrevido, valiente.
 BAITA, bait da, da ta.
 BAITAGO, bait dago, dago ta.
 BAITAUKA, bait dauka, dauka ta.
 BERAZ, hori dala ta, por consiguiente.
 BEREHALA, behingoan, en seguida.
 BEREZI, aparteko, espectral.
 EKAIN, bagil, junio.
 EPE, plazo.
 EREMU, extensión.
 ESKAINI, eskini, eskeini, ofrecer.
 FUNTS, fondo, sustancia.
 GISA, modu.
 HELBURU, asmo, objetivo.
 IGANDE, domeka.
 MEMENTO, momentu.
 MENDE, gizaldi, siglo.
 MINTZATU, berba egin.
 NABARI, evidente, notorio.
 NABARITU, advertir, percibir.
 OTSAIL, zezel, febrero.

SAIATU, arduratu, esforzarse.
 SUDUR, suur, sur.
 TAXUZKO, egoki, conveniente.
 UZTA, cosecha.
 ZENBAIT, batzuek.
 ZINEZ, benetan.

Beste euskalkietakoak

AISE, erraz, errez.
 ALAJAINETAN, alajaina, pardiez, por cierto.
 ARABERA, según, conforme.
 BILERA, batzar, reunión.
 BUKAERA, amaiera, fin, término.
 BUKATU, amaitu.
 ESKUALDE, comarca.
 INKESTA, encuesta.
 MENDEBAL, sartalde, occidente.
 OROKAR, general.
 ZALANTZA, duda, ezbai.

MEZENAS BILA

Grezian, lehengo denbora zahar ta zoriontsu hareetan, ba zan gizon bat, izenez Mezenas deitzen zana.

Oso aberatsa zan, ta Greziako artistei diruz eta ezagupidez laguntzen eutsen, obra eta frutu ederrak emon eiezan. Grekoen kulturea asko landu, findu eta goratu zan honela, Mezenasen borondate onari esker.

Harrezkero, artistei laguntasuna emoten deutseenei "Mezenas" esaten jake. Italian, bere Erdi Aro osteko Bizkunde eder ta oparo haretan, ba ziran Mezenas batzuek. Honelakoan artean, Aita Santu batzuek aipa daitezke eta italiar familia andiki batzuek bere. Guztion "mezenastasan" hareri esker, orduko kulturea zeruetaraino jaso zan. Medicitarrei zor jake, Michel Angelo artista paregabeak egindako hainbat eskultura ta fresko imitagatx.

Denbora guztietan, laguntza ofizialak urri izan diranean, Mezenas laguntzaileen auspokadak oso onuragarriak izan dira kultura guztietan.

Azkenetako Mezenas bat, Alfred Nobel izan zan, dinamitearen asmatzailea, bere eriotze ondoan hain ezaguna dan Saria ipini ebana.

Noizik behinka, Ameriketatik etorritako indiano aberatsen batek, Asturiasen-edo, bere errian hospitale edo eskolaren bat eginazoten dau, erriarenganako maitasunak bultz eginda. Egite txalogarriak euronak!

Euskalerrian bere, noizik behin, beste horrelakoren bat ezagutu izan da, urri izan arren; baina, zoritxarrez, ia beti erdal kulturearen alde edo gure kulturearekin zerikusirik ez daben gauzetarako (pelotaleku baterako-edo).

Aurten, baina, Amerikatik, Caracasetik hain zuzen, Andima Ibiñagabeitia idazle famatuaren izenean mila dolarreko sari bat eskaini* da literaturarako, Ikastoletarako textoak egiteko, urteroko saria izateko gogoz, antza.

Gure txalorik beroenak hain asmo ederra euki daben Euskera Lagunen Elkartekoei (E.L.E.).

Baina sari hori ez da nahiko. Hori ba dakigu ta berorrek penatzen gaitu, gure kultura ta izkuntzea ohi ez lako diru laguntzen preminan dagoz eta.


Zenbat eta zenbat pertsona euskaldun dagoz gurean, dirua eurrez* eta atzak betean dabenak, zetarako gura daben bere ez dakiela (ilgo diranean, euron lehengusu, ahaide ta loba diru-goseztoentzako ez bada!) euskal kulturearen alde hainbat egin leikeenak! Hor, gainera, euron izenen gomutagarri ta betikotasuna dauke, sari bat euron izenaz jarri ezker.

Penagarria da, gure literaturearen egoera honetan, ez bankuk, ez erakundek, ez inongo aberatsek txakur txikirik ez emotea. Katalunian, barriz, gauza jakina da goikoen laguntza mesedegarria norainokoa dan.

Ameslari utsa nintzateke antza, hau idatzi dodalako pentsatuko baneu, euskaldun irakurleen artean mezenasik sortuko dala, gure kultureari laguntza emoteko; baina, basamortuan dehadarka alferrik banengo bere, nok daki zer jazo daitekean.

Ea gure Erriko Mezenas-gai batzuek biztuten jakuzan. Batzuetan, gutxien uste zan lekutik egiten dau salto erbiak.

XABIER KINTANA



AMABOSTEROKOA ARTU NAHI DOT URTEAN 100 PESETA ORDAINDUZ

IZENA
 BIZITOKIA
 ERRIA PROBINTZIA

Eskatu: Apartado 17 - GALDAKANO

B u s t u r i a (2)



Gernika ta Lumo

Axangiz eta guzti, 15,62 km.² ditu, ta 8.940 bizilagun. Bere auzoak: Arana, Zallo, Lumoko San Pedro, Foruko uriauzoak* eta uria bera. 1882-ko urtarrilaren 8-an, bat egin ziran Gernika ta Lumo. Lehen ez egoan igartzerik non zan bat edo bestea, Arbolea bera be Lumoko lurretan egoan eta. Bizkaiko Batzar Nagusiak dirala, batzarlekuko Arbolea dala, azkenengo gerratea ta Picasso dirala, mundu guztian ezaguna da erri hau. Euskaldunontzat gure lege ta askatasunen abia ta sinbolu, guk bedeinkatua, ta beste edo besteratuak madarikatua ta kiskaildua, Gernikaren unibersaltasuna alde batera itxita, lan honen zera ez baita*, uria bera ikusi daigun.

Urigintza* polit eta apainekoa; kafetegiz eta jatetxez ondo ornidua; pelotariz, probagizonen eta drogagizonen bere bai; burgeskumez baita. Baina hori bakarrik ez da Gernika; langile erri bat bere ba da, baita eskualde guztiko baserri-



Ez zera eroriko...

tarren astelehenetako azoka ta artuemonen erria bere bai. Bertako dendak, Busturi eskualde guztiari saltzen deutsoe. Industria aldetik, orfebreria ta mahaiko tresna lantegiak, 1.010 behargin dabez; iskilo fabrikak, 465; ta beste ola* ta lantegiak, 600 inguru. Urteko produzinoa 650 miloi peseta ingurukoa da, ehuneko 20 bat esportazinokoa. Erri zerbitzuetarako ba ditu: auzitegi, notaria, jabetasun errejistro, baserri zabalkunde (extensión agraria), banku etxeak eta abar; baina urigintza kontuan eta beste arazo askotan esku-bide gehiago eukiko leuke, eskualdeko errien mankomunitade on bategaz. Esate baterako: trenbidea bere kontu artu ta erriaren zerbitzuan jarri; autobusak, bigarren mailako ikastetxea, umeak eskolara autoz igarotea ta turismo arazo guztia eskualdearen eskuan ipini, eta abar.

Kosnoaga mendiaren bizkar baten dago Lumo, erri apal, baketsu, baina ikusmira* zoragarriekin.

Muxika

19,98 km.² ta 1.488 bizilagun. Bere auzoak: Astelarra, Basangiz, Ordorika-Areatza, ta Ugarte edo Elexaldea. Andramendi, Oka ta beste torretxe batzuek, bere barrutian egon ziran edo dagoz, eta batez bere Muxikatarrena, erriari izena emon eutsona ta Oñaz-Ganboarren arteko burruketako jauntxoan bizilekua. Bere ondoan San Roman ermitea aurkitzen da, arte aldetik interesgarria. Baserri erria, baina Astelarra inguruan industria sartzen asi da. Uriburua Kurtzerua deitzen jakon tokira aldatzen dabilta, frontoe, Udalte* ta abar. Kepa Enbeita "Urretxindor" bertsolari maisuaren erria, bere iturria ez da agortu oraindik, seme ta loba ugarien artean jarraitzen baitau* bertso emoia eten barik emoten.

Erri honek, Zornotzako merindadearen erri bi beragatatu ditu, orain dala lau urte: Gorozika ta Ibarruri. Gernikak egin dauan antzera.

Gorozika

9,09 km.² ta 331 bizilagun. Bere auzoak: Agirre, Ziritza, Esturo, Zugaztieta eta erriburua. Bizkargi bizkarrean dagoan baserri ta arrobi* erria, Zugaztieta auzoan zelai polita dauka, tren geltoki ta guzti. Axuritik zehar Markinara doan bideak eta Ibarruritik igarota Durangorakoak, bertan bat egiten dabe Zornotzatik Bermeora doan bidegaz.

Ibarruri

20,82 km.² ta 670 bizilagun. Bere auzoak: Ibarruriko Elexaldea (erriburua), Axuria, Maguna ta Zugaztieta. Bizilagunetz urritu dan erria, baserriak utsituta, basoz bete da. Gorozikak eta Ibarrurik bien artean euken Zugaztieta auzoa, etorkizun oneko tokia, lurrez eta komunikazinoz. Horregaitik edo alkar ikusi ezinagaitik, ez dabe jarraitu Bedarona ta Natxituk behinola egin ebenari, eta Muxikak iruntsi ditu.

Mendata

22,81 km.² ta 736 bizilagun. 1860-an, 1.153 bizilagun eukazan. Bere auzoak: Albiz, Marmiz, Olabe ta erriburua. Lehen baserri erria, orain geroago ta gehiago baso erria. Lehen Gernikako uriak irunsterik ez eban gura izan, ta ondo dago; baina Gernika buru dan eskualdean ez alkar-tea, ta horren ordez Markina buru danekoan egitea bere, ez da astakeria makala! Erri honek parrokia bi ditu, bata erriburuan eta Albizen bestea.

Errigoitia

15,96 km.² ta 879 bizilagun. Erri honek bere, atzerakada ederra: 1860-an, 1.267 bizilagun eukazan. Bere auzoak: Atxika-Errekalde, Metxika, Olabarri, Elexaldea ta uria. Joan I, Gaztelako estrege ta Bizkaiko jaunak sortu eban erri hau, hain zuzen bere, Mungia ta Larrabetzu sortu eban ta egun berean, 1376-ko abuztuaren 1-ean. Mendi gainean dagoan erria, bertan dago Bizkaigane deritxon tontorra, ikusbide ederrekoa. Baserri erria, probalari ta Gernikako taberneru gehienen sorterrria.

Arteagako Gautegiz

13,88 km.² ta 1.053 bizilagun. Bere auzoak: Agirreta, Arteaga-Uria, Basetxeta, Kanala, Islak, Mendialdua, Orueta, Errekalde ta Zelaieta (erriburua). Ortuarietan erri famatua, bere alboko erri Kortezubiren antzera. Arteaga torretxea egoan lekuan, Frantziako Napoleon III garrenaren emazte zan Eugenia Montijokoak gaztelu barri bat jaso eban, jatorritz bertakoa zalako. Gaur, azkenengo lapurreten ondoren, oso ganora barik aurkitzen da gaztelu hau. Aurrera joanda, itsasalderantz, Kanala erritxo dago, etxe batzuek Arteagaren mende ta besteak Sukarrietaren mende. Erdibituta egon barik eta bere toki edertasunaz balliatirik, etorkizunak batasun bat emongo ahal deuta!

Ereño

10,72 km.² ta 499 bizilagun. Bere auzoak: Akorta, Atxoste, Basetxeta, Bollar, Zea, Gabika ta Elexaldea (erriburua). Lurrez ez hain aberatsa, ordainez arrobiz* ba da. Arrobiak dira, hain zuzen bere, erri honen bigarren aberaspiderik aundiena, lehenengoa baita* Amerika ta Australiatik erriko semeak bidaltzen daberen dirua. Gabika bere bigarren parrokiatik Nabarnizera bidea egiteak, erri bien antzinako amets bat beteko dau.